



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailak 7

Vitoria-Gasteiz, 7 de julio de 2016

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

EUSKO JAURLARITZAK 2030 EUSKAL ESTRATEGIA ENEGETIKOA ONARTU DU

- ❖ Euskadik 2016-2030 aldian % 17ko aurrezki-maila lortu nahi du, eta Euskal Administrazio Publikoak eredu izan nahi du bere eraikinetan.
- ❖ Helburuen artean energia berriztagarrien erabilera bikoiztea dago, baita petroliotik eratorritakoen kontsumoa % 18 murriztea ere, 2015. urtearekin alderatuta.
- ❖ Jardun horiek energia-kontsumoaren intentsitatea % 33 hobetzea, klima-aldaketa moteltzen laguntzea, eta garapen teknologiko-energetikoa sustatzea ahalbidetuko lukete.
- ❖ 15 urte horietan beharrezkoak izango liratekeen inbertsioak 4.930 M€ izango lirateke.

Testuingurua

Euskal energia-politikaren jarraibideak 1981az geroztik ezarrita daude orain arte horri lotuta egin diren dokumentuetan. 2020rako Euskadiko Energia Estrategiak (3E2020) Euskadirako 2011-2020 aldirako helburu estrategikoak, jardun-arloak eta ekimen estrategikoak ezarri zituen.

Azken urte hauetan indarrean dagoen Euskadiko 2020rako energia-estrategia berrikustea beharrezkotzat jotzen duten hainbat faktore izan dira. Alde batetik, krisi ekonomikoa hasieran aurreikusi zena baino gehiago luzatu da, eta oso poliki ari gara ateratzen krisi horretatik. Bestalde, azpimarratzekoa izan da azken lau urteetan energiaren sektorean oro har, eta elektrikoan bereziki, egin diren erreformak.

Erreforma horiek honako hau ekarri dute, besteak beste: erregulatutako jardueren ordainsarien murrizketak, sarbide-tarifen kostuen igoera kontsumitzaileentzat, eragin nabarmena izanik kogenerazioan eta berriztagarrietan, instalazio berriak geldiaraziz, edo automozioiko bioerregaien kuotaren atzerakada. Ikuspuntu teknologikotik, hainbat funtsezko teknologiak ez dute aurrera egin aurreikusita zegoen erritmoan, adibidez ibilgailu elektrikoak, eta fotovoltaiakoaren kostuak jaitsi egin dira, sare-parekotasunera hurbilduz.

3E2020 estrategiaren esparruan energia-politikako jardun asko martxan jarri diren arren, jardun horietako batzuk ez dira hurbiltzen ari ezarrita zeuden helburuetara. Izan ere, krisi ekonomikoan murgilduta egonik ere energia-efizientzian eta teknologia-garapenean aurrerapen positiboak egin diren eta funtsezko hainbat energia-azpiegitura martxan jarri diren arren, ez da gauza

bera gertatzen energia berriztagarrien zabalkundearekin, Eusko Jaurlaritzaren programekin lagundutako instalazio txiki asko egin badira ere. Aipatu diren faktore horiek guztiek 2020ko helburuak berrikustea eta ikuspegi berri bat planteatzea ekarri dute.

Europar Batasunak, klima-aldaketaren aurkako borrokan munduko lehen eragilea izaki, 2020. eta 2030. urteetarako energiari eta klimari lotutako helburuak betetzera bideratutako hainbat jardun ezarri ditu. Eta Euskadiren kasuan, 2015ean onartu zen 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiak jasankortasun-konpromiso garrantzitsuak ezartzen ditu Euskadirako, datozen hamarkadetan bete beharrekoak.

Testuinguru horretan, energia-efizientzia eta energia berriztagarriak funtsezko jardun-ildo bihurtzen dira gure jardueren ingurumen-inpaktua arintzeko, oro har erregai fosil guztien eta bereziki petrolioaren pisua murrizteko, herritarren energia-faktura optimizatzeko, gure enpresen eta produkzio-sektoreen lehiakortasuna indartzeko, eta, azken batean, energia-eredu jasangarriago baterantz bideratzeko.

Ingurumen Ebaluazioa eta kontsulta publikoko prozesua

Estrategia berriaren diseinuaren barruan, 211/2012 Dekretuan eta 21/2013 Legean deskribatutako planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura kontuan izan da, lantzeko prozesuan ingurumenari lotutako alderdiak barnean hartzeko.

Prozesu hori hainbat fasetan gauzatu da. Aurretiazko kontsulten lehen fase batean, 2015eko martxoan hasi zena, eraginpeko administrazio publikoei eta erakunde interesdunei Plana egiterakoan kontuan izan beharreko irizpideei buruzko iritzia eskatu zitzaion. Premisa horiekin strategiaren dokumentua egin zen, Ingurumen Azterlan Estrategikoa erantsiz, eta bigarren fase batean jendaurrean jarri zen 2016ko urtarrilean. Azterketak egin eta alegazioak gaineratu ondoren, 2016ko apirilaren amaieran dokumentu guztiak ingurumen-organora bidali ziren, bertan balioesteko eta ingurumen-deklarazioa egiteko.

Etorkizunerako ikuspegi estrategikoa

Euskadiko Energia Estrategiaren epe luzerako orientabideak euskal eredu sozioekonomikoaren bilakaera progresiboan oinarritutako energia-sistamarantz bideratzea dakar, batez ere industriari, eraikinei eta garraioari dagokienez, hain intentsiboa ez den erregai fosilen kontsumo txikiagoko eredu berri baterantz bideratzen da, energia berriztagarriak gero eta gehiago erabiliz, gas naturala trantsizioko energia gisa baliatuz, eta energia elektrikoa energia-bektore nagusia izanik.

Euskal energia-sistemak Klima Aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategiaren helburuak betetzen lagundu behar du, hala nola: Euskadiren berotegi-efektuko gas-emisioak 2030erako gutxienez % 40 eta 2050erako % 80 murriztea, betiere 2005. urtearekin alderatuta; eta 2050. urtean amaierako kontsumoaren gainean energia berriztagarrien kontsumoa % 40ra iristea.

Horretarako, Euskadik aurrerantz egin behar du eta duela 35 urte hasitako energia-aurrezpen eta -efizientziako politika hobetu behar du, politika horrek energia-kontsumoaren intentsitate-mailak nabarmen murriztu baititu, baina ahalegin handiagoa egin behar da sektore lausoenetan, adibidez eraikinetan eta garraioan. Bestalde, euskal energia-mixetik ikatza ia erabat ezabatu denez, eta Euskadin sektore kontsumitzaile tradizionaletan (industria, eraikinak eta elektrizitate-sorkuntza) petrolioarekiko mendetasuna neurri handi batean murriztea lortu denez, “petrolioaren zero kontsumoa energia-erabileretarako 2050ean” helburua lortzeko egitura-aldaketa sakona egin behar da garraio-sisteman. Eta epe luzeagora, planteatutako helburuak lortzeko, beharrezkoa izango da erregai fosilekiko lotura erabat haustea eta berotegi-efektuko gasen zero emisio garbiak lortzea, energia berriztagarriak izanik energia-hornidurarako iturri nagusia.

Energia-politikaren printzipioak

- Enpresan, etxean eta garraioan ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko energia gutxiago behar duen sistema sozial eta ekonomiko bat lortzen laguntzea, energia-aurrezpena eta -efizientzia sustatuz.
- Energia fosilen ordeztzea energia berriztagarri gehiago produzitzea eta kontsumitzea, natura-ingurunearen babesarekin bateragarria den moduan, soilik energia berriztagarriak erabili ahal izango diren epe luzearako etorkizuna prestatuz.
- Garraioan petrolioaren energia alternatiboekin ordeztzeko planteamendua bultzatzea, ingurumen-inpaktua eta energia horren etorkizuneko eskasiarekiko kalteberatasuna murriztuz.
- Aurrezpenaren, energia-efizientziaren, energia berriztagarrien eta petrolioaren ordeztearen bitartez CO₂ko emisioen murrizketa lortzea, klima-aldaketa moteltzen lagunduz.
- Energia-sistema gainbegiratzea kontsumitzaileen beharrezkoetara egokitzen ote den egiaztatzeko, konpetentzien barnean merkatuetan eta araudian eragina izanik eta hornidura bermatzen lagunduz.
- Energia-efizizentzian eta energia berriztagarrietan teknologia berriek eskaintzen duten produktu eta merkatu berriak garatzeko ahalmena aprobeztatzea euskal industriarentzat.

2016-2030erako jardun-ildo nagusiak

Industria-sektorean

Energia-kostuetan lehiakortasuna hobetu eta energia-kontsumoaren jasangarritasun progresiboa bultzatu nahi da. Helburua industria hobetzen eta haren ingurumen-inpaktuak murrizten laguntzea da, energia-kontsumoa

murriztuz eta energia jasangarriagoen erabilera sustatuz. Energia berriztagarrien aprobetxamendu termikoko sistema/ekipamendu osagarrien (eguzki-energia termikoa, geotrukea, biomasa) ezarpena bultzatzea jardun-ildo bat da industrian energia berriztagarrien erabilera areagotzeki, energiarekiko mendetasuna txikiagotzeki, energia-faktura jaistekari eta CO₂ko emisioak murrizteari begira.

Garraio-sektorean

Helburua petrolioarekiko mendetasuna murriztea da, eta oinarrizko estrategia ibilgailu alternatiboen erabilera bultzatzea eta beharrezko erreforma-instalazioen ezarpena indartzea da. Erregai hori beste energia alternatibo batzuekin ordeztearen alde egindako apustu horrek airearen kalitatea hobetzen berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten laguntzen du. Honako jardun hauek egingo lirateke: mugikortasun jasangarria eta garraio modu efizienteagoen erabilera sustatu, garraio publikoaren erabilera, ibilgailu efizienteagoen erabilera eta ibilgailu horien erabilera arrazionala bultzatu, eta erregai eta teknologia alternatiboen erabilera indartu.

Eraikinetan eta etxean

Energia-kontsumoa murrizten jarraitu behar da, autokontsumo termiko eta elektrikorako energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazio berrien ezarpena areagotuz. Jardun horiek etxebizitzetan eta zerbitzu-sektorean egin behar dira, eraikinetan eta etxeetan kontsumoa murriztuz, berriztagarrien erabilera handituz eta energia-hobekuntzak sustatuz, eta eraikinetan energiaren efikazia eta kudeaketarako prestakuntza eta sentsibilizazioa bultzatuz.

Sektore publikoan

Bereziki aipatu behar da energetikoki efizienteagoa izango den euskal administrazio publikoa sustatzeko konpromisoa, kudeaketaren arrazionaltasun-eredu izan behar duena energia-faktura jaisteko, klima-aldaketa moteltzen laguntzeko eta inbertsioak mobilizatuko dituen sektorea izateko.

Energia-sektorean

Euskadin elektrizitatea energia berriztagarrien bidez sortzea bultzatuko da ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasuneko irizpideekin, sektorearen industria-garapena sustatuz. Helburu hori lortzeko energia berriztagarriak sortzeko ahalmena handituko da, erakundeen arteko adostasuna eta jasangarritasun-irizpideak direla medio, eta energia berriztagarri berrien garapena bultzatuko da. Gainera, azken urteetan garatutakoaren ildotik, gas naturaleko balizko baliabideak ote dauden jakiteko beharrezko azterlan, lan eta analisiak egiten jarraituko da, betiere indarrean dagoen legeriaren esparruaren barnean.

Energiaren I+G+B sektorean

Energiaren alorreko teknologia- eta industria-garapeneko euskal strategiaren helburua enpresa eta agente zientifiko-teknologikoen sarea eta haien lehiakortasuna oro har sendotzea da, euskal industriaren ahalmenetan oinarrituz, Euskadiren espezializazio adimendunari (RIS 3) eta aberastasuna, enplegua eta bizi-kalitatea lortzeko iturri izan dadin. Horretarako, euskal enpresa eragileak sendotu nahi dira erreferente teknologiko gisa, eta energiaren eremu berrietan eta zeharkako teknologietan enpresa-jarduerak garatu nahi dira.

2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren helburuak

1. 2016-2030 aldian urteko 1.250.000 tep-eko energia primarioko aurrezkia lortzea, eta horrek % 17ko aurrezkia ekarriko luke 2030ean. Horren ondorioz aldi horretan energia-intentsitatea % 33 hobetuko litzateke.
2. Energia berriztagarrien erabilera % 126 indartzea 2030ean 966.000 tep-eko aprobetxamendura iristeko, eta horren ondorioz azken kontsumoan % 21eko kuota lortuko litzateke berriztagarrietan.
3. Euskal administrazioaren erabateko konpromisoa sustatzea bere instalazioetan 10 urteko epean energia-kontsumoaren % 25eko murrizketa lortzeko, bere eraikinen % 25ean energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak ezartzeko, eta parke mugikorrean eta zerbitzu publikoko flotetan ibilgailu alternatiboak inkorporatzeko.
4. Errepide bidezko garraioan energia alternatiboen % 25eko kuota lortzea, petrolioarekiko lotura gutxituz eta ibilgailu jasangarriagoak erabiliz.
5. Kogenerazioaren eta berriztagarrien parte-hartzea handitzea, 2015eko % 20tik 2030eko % 40ra iristeko.
6. Euskal enpresa, zentro teknologiko eta agente zientifikoaren sarearen lehiakortasuna indartzea energiaren alorrean ikerketa, garapen teknologiko eta industrialerako lehentasunezko 9 arlo bultzatuz, Euskadiko espezializazio inteligenteko RIS3 estrategiarekin bat etorrituz.
7. Klima-aldaketa moteltzen laguntzea berotegi-efektuko gasen urteko 3 Mt murriztuz energiari lotutako neurrien ondorioz, eta horrek berotegi-efektuko gasen emisioen % 35eko murrizketa ekarriko luke 2005. urteko emisioekin alderatuta.

Inbertsioak

Planteatu diren energiari lotutako helburuak lortzeko sektore guztien artean 4.930 M€-ko inbertsioak sustatu behar dira 2016-2030 aldian. Arloka hartuta, azpimarratzekoak dira energia-efizientzian (% 45) eta berriztagarrietan (% 50) egin beharreko inbertsioak. Euskal administrazioaren inbertsioak 920 M€ izango lirateke.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

HIRIGUNE LAGUNTZA-PROGRAMAK 3.216.428€ BIDERATUKO DITU Merkataritza-Lankidetzako Zona-Estrategiak Sustatzera

Eusko Jaurlaritzak Hirigune laguntza-programa onartu du hiri-merkataritzako lankidetzako, dinamizazioko eta lehiakortasuneko zona-estrategiak sustatzeko. Programa horretarako 3.216.428 €-ko baliabide ekonomikoa bideratu da, eta zenbateko horretatik 1.571.428 € udalentzat izango dira eta 1.645.000 € saltzaile-elkarteentzat eta elkarte mistoentzat edo hiri-merkataritzako plataforma, elkarte edo taldeentzat.

Laguntza horien helburua da euskal saltokietarako agertoki lehiakorragoa eta profesionalagoa sustatzea; izatez, saltokiek gero eta argiago definitu beharko dituzte hainbaten lanak batuko dituzten tresnak, betiere bezeroak erakartzera eta fidelizatzen zuzenduko diren estrategiak finkatzen.

Erakunde onuradun gisa laguntza horiek eskatu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek eta saltzaile-elkarteek edo elkarte mistoek edo hiri-merkataritzako plataforma, elkarte edo taldeek. Lankidetzako publiko/pribaturako "esparru-akordioa" sinatu beharko dute eta betekizun hauek bete beharko dituzte:

- Euskal Autonomia Erkidegoko 15.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 15.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak, baina hirigune historikoa dutenak eta merkataritza-suspertzeko ahalmena dutenak.
- Haien eskualde-ingurunean ekonomia- eta merkataritza-erreferentziako gune diren udalerriak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 5.000 biztanle baino gutxiagoko gainerako udalerriak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko saltzaile-elkarteak, elkarte mistoak eta saltzaile-elkarteen federazioak edo konfederazioak –Saltzaileen Erroldan inskribatuta egon beharko dute–.

Eskabideak, betekizunak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak irailaren 30era arte egin ahal izango dira bitarteko elektronikoz bidez, administrazioari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera.

Aurreko aukeraz gain, sinadura digitala erabili nahi ez bada, eskabideak bete eta <http://www.industria.ejgv.euskadi.net/appcont/osaga-emp/dec.html> web-helbidean modu informatikoan grabatu ostean, proiektua kokatzen deneko Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Iraunkortasun Sailaren lurralde-ordezkaritzan aurkeztu ahal izango dira, baita Eusko Jaurlaritzaren

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren (Zuzenean) bulegoetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan ere.

Eskabide guztietan zehatz-mehatz adieraziko dira:

- Udalerrian dauden saltzaile-elkarteen kopurua eta izena, eta, hala badagokio, horien ordezkariaren izendapena.
- Helburuak.
- Ekintzak.
- Egutegia.
- Hura gauzatzera bideratuko diren baliabide ekonomikoak eta horien jatorria.
- Ekintza bakoitzaren estaldura eta arrakasta-maila neurtzeko adierazleak.
- Proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko organoa eratzea, aldez aurretik ez badin badago.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

EUSKO JAURLARITZAK 500.000 EURO BIDERATUKO DITU ESNETARAKO BEHIEN ONGIZATEA HOBETZEKO JARDUERAK SUSTATZEKO

- **Euskadiko ustiategiaren lehiakortasuna areagotzea da animalien ongizatearen alorrean jada derrigorrezkoak diren neurrietatik haratago doazen beste neurri batzuk ezartzearen helburua.**

Uztailaren 7an Gobernu Kontseiluak egindako bileran, 2016an esnetarako behien ustiategietan animalien ongizatea hobetzeko jarduerak diruz laguntzeko deia onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak emandako Aginduaren bitartez egin da deia, eta Aginduaren arabera 500.000 euro bideratuko dira laguntza horietara.

Helburua da ustiategi mota hauek laguntza izatea animalien ongizatea hobetzeko jada alor honetan derrigorrezkoak diren betekizunetatik aparte zorrotzagoak diren beste neurri batzuk errazago aplikatzeko et, horrela, Euskadiko ustiategiak lehiakorragoak izan daitezen.

Aurretik hartutako konpromisoei dagokien urteko ordainketarako eskaerak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta Nekazaritzako Eskualde Bulegoetan edo Ekonomiaren Garapeneko Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira. Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Onuradunak

Euskadiko esnetarako behien ekoizleak izango dira neurriaren onuradunak. Era berean, aurreko ekitaldietan laguntza hauek eskuratu zituztenek eta dagokion konpromisoa izenpetu zutenek, urteko ordainketarako eskaria aurkeztu beharko dute, eskariarekin batera agiri hauek ere aurkeztuta:

- Hartutako konpromisoak bete izanaren eta hori egiaztatzeko egingo diren kontrolak igaro izanaren zinpeko aitortpena.
- Abeltzaintzako errolda, NPBko laguntza zuzenak eskuratzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunekoa, eta, hala badagokio, ustiategia etekinen kontrolerako programa bati atxikita dagoela egiaztatzen duen agiri bat sartuko da, dagokion elkarteak emanda.

Enplegu eta Gizarte Politikak

3 MILIOI EURO HIRIGUNEETAKO IRISGARRITASUN PLANETARAKO

Ángel Toña Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak 3 milioi euroko diru-laguntza bideratu du hirigune eta eraikinetako irisgarritasun-planak eta hobetzeko obrak egiteko deialdira.

Diru-laguntzen programa Birgaitzeko Renove Planaren barnean dago, eta Eusko Jaurlaritzak 2013-2016 aldirako Enplegua Sustatzeko Programan ezarritako sei ildo estrategikoetako bat da. Laguntzak eskatu ahal izango dituzte udalek, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek eta erabilgarritasun publikoko helburu sozialak dituzte erakunde pribatuek. Horretarako, honako hau egin beharko dute:

- Hiri-inguruetan, espazio publikoetan, eraikinetan, garraiobideetan ea informazio-sistemetan egokitzapen progresiboak ezartzeko irisgarritasun-planak eta horien eguneraketak egitea.
- Diru-laguntzak udaletako eta toki-erakunde txikietako irisgarritasun-planetan Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruko hiriguneetan eta eraikinetan irisgarritasuna hobetzeko lanak burutzea, eta erabilgarritasun publikoko erakunde pribatuen kasuan, berriz, hobetzeko lanak egitea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko ekipamenduak erosi eta instalatzea (baldintza horiek udalen eta toki-erakunde txikien irisgarritasun-planetan bilduta daude).

Irisgarritasun-planez eta horien eguneraketez gain, kontuan hartuko dira, halaber, honako jardura hauek:

- Eraikinetako irisgarritasuna (horizontala eta bertikala, igogailuak eta plataforma jasotzaileak, egokitutako ateak, eskubandak, komunak eta aldagelak)
 - Pasabideak, arrapala ez-mekanikoak eta eskubandak sortzea
 - Hiriko igogailuak eta plataforma jasotzaileak
 - Mugikortasun gutxiko pertsonentzako aparkalekuak gordetzea.
 - Eraikinetako seinaleak eta ekipamendua egokitzea
 - Kaleak urbanizatzea (plataforma bakarreko kaleak, espaloiak zabaltzea, oinezkoen ibilbideak murrizteko igarobideak, txorkoak ixtea).

Enplegu eta Gizarte Politikak

2,4 MILIOI EURO GEHIAGO GIZARTE EKONOMIAREN GARAPENA SUSTATZEKO

Ángel Toña Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, gobernu-kontseiluak hiru laguntza-lerro onartu ditu gizarte-ekonomiaren arloan, 2,44 milioi euroko zenbatekoarekin. Laguntza horiei eta aurreko astean onartu ziren 1,23 milioi euroko beste batzuei esker hainbat jardueraren garapena abiaraziko da sektore horretan.

Lehen laguntza-lerroak gizarte-ekonomiako enpresak sortzen eta sustatzen lagunduko du, bai eta gizarte-ekonomiako enpresen lurraldearen araberrako sustapen planifikatua egiten ere. Helburu horiek lortzera bideratuko dira 1,53 milioi euro. Lehenengo lerro horrek jarduera hauetarako diru-laguntzak hartzen ditu baitan:

1. Gizarte-ekonomiako enpresak eratzea, bai eta jada sortutako enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzea.
2. Gizarte-ekonomiako enpresa baten eraketarekin zuzenean lotuta dauden sustapen-ekintzak egitea.
3. Bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioa zehazteko ikerketak egitea.

Atal horren barruan, diruz lagunduko da, halaber, gizarte-ekonomiako enpresak lurraldean modu planifikatu batez sustatzeko ekintza-plan bat egitea, aberastasuna modu ekitatiboan sortzea eta banatzea eta eskualdean enplegua sortzea.

Bigarren laguntza-lerro baten bidez, Eusko Jaurlaritzak enpresen arteko lankidetzak sustatuko ditu, gizarte-ekonomiako enpresen elkarrekin kideratutako enpresentzat egiten dituzten proiektuen bitartez, eta 166.667 euro bideratuko ditu guztira horretarako.

Azkenik, 250.000 euro ere jarriko dira, enpresetan kudeaketa-tresnak ezartzeko, laguntza tekniko moduan, etengabeko hobekuntzari begira eta kooperatiba eta lan-sozietate hasiberrietan kalitatea planifikatzeko eta kudeatzeko tresnak ezartzeko.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

340.000 EURO NAZIOARTEKO KIROL-LEHIAKETETAN PARTE HARTZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, nazioarteko izaera duten kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko diru-laguntzak ematen dituen Agindua onartu du. Kirol-lehiaketa hauek, 2016an hasi edo burutu beharko dira.

340.000 euroko diru-kopurua duen deialdi honek, nazioarteko federazio baten edo nazioarteko liga profesional baten egutegi ofizialean sartuta dauden kirol-lehiaketetan parte hartzea laguntzen du diruz. Lehiaketa hauek gainera, goi mailako kirola sustatzera bideratuak izan beharko dute. Ez dira diru-laguntza deialdi honetan aintzat hartzen parte-hartzea sustatzea helburu duten kirol-programak (aisialdi-kirola, kirol osasungarria).

Diru-laguntza hauen onuradun izango kirol elkarte edo taldeak, eta kirol helburua duten entitateak. Kirol Federazioek ezin dituzte diru-laguntza hauek eskatu.

Nazioarteko kirol lehiaketak, eta euskal kirolariak horietan parte hartzea, euskal kirola nazioartean ikustarazteko plataforma ezin hobekak dira. Gainera, gizartean oro har kirolaren praktika suspertzeko ere baliagarri dira lehiaketa horiek. Joan zen 2015 urtean, Eusko Jaurlaritzak 22 kirol elkarte edo klub lagundu zituen diruz deialdi honen bidez.

600.000 EURO MUSEOEN SUSTAPENERAKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, museoek jarduerak sustatzeko diru laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duen Agindua onartu du. Zehatzago, Euskadiko bildumen eta museoek zabalkunde kulturala sustatzen duten jarduerari, eta museoek sustapenerako ekintzei zuzendutako diru-laguntzak dira.

Deialdi honen onuradun dira: Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan izena emanda dauden pertsona fisiko nahiz juridikoak, publiko zein pribatu, baldin eta museo edo bildumaren baten jabe badira. Deialditik kanpora gelditzen dira: Foru jabetza duten museo edo bildumak, beren gobernu organoetan Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila partaide duten fundazioak, eta beren kapitalean Euskadiko Administrazio Orokorra partaide duten merkataritza erakundeak.

Deialdi honek 600.000 euroko diru kopurua du. Eskararak aurkezteko epea hilabetekoa da, Agindua EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

460.000 EUSKARAZKO IKASMATERIALETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburuaren proposamenez, gaurko bileran Agindu bat onartu du, eta agindu horren bidez dirulaguntzak deitzen dira unibertsitateaz kanpoko mailetako euskarazko liburu eta gainontzeko ikasmateriala erosteko (EIMA I).

Guztira 460.000 euroko zenbatekoa duten dirulaguntza horiek euskarazko irakaskuntzak ikasleei gastu gehiago ez sortzea dute helburu, erabilitako ikasmaterialaren arabera.

1,03 MILIOI ESKOLATZE OSAGARRIKO PROGRAMAK GARATZEKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, 2016-17 ikasturtean eskolatze osagarriko programak garatzeko diru-laguntzetarako deialdia egiten dituen Agindua onartu du.

Deialdi honek diruz lagunduko dituen eskolatze osagarriko programak, egoera sozial eta kultural kaltegarrian egon eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dituzten 14 eta 16 urte bitarteko ikasleei zuzenduak izango dira.

Deialdi honek 1.030.000 euroko diru kopurua du, eta beronen onuradun izan daitezke: udalak, mankomunitateak edo beraiek sortutako entitateak, irabazi asmorik gabeko entitateak eta itunpeko ikastetxeak. Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa da, Agindua EHAA n argitaratu eta biharamunean hasita.

500.000 EURO GURASO ELKARTEETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko egunean onartu du Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteentzako dirulaguntzak deitzen dituen agindu bat.

500.000 euroko zenbateko globalean dirulaguntzak deitzea du agindu honek helburu, ondorengo gastuak finantzatzen laguntzeko: HHiko ikasleen elkarteek eta guraso elkarteek funtzionatzeko jarduerak eta azpiegiturek eragindakoak; ikastetxe desberdinetako guraso eta ikasleei zuzendutako jarduerak eragindakoak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

PRESTAKUNTZA PEDAGOGIKO ETA DIDAKTIKOAREN ZIURTAGIRIA

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmena izenpetzeko baimena Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari ematea erabaki du; titulazio-arrazoiengatik master-ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzat exijitutako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala lortzeko ikasketak antolatu, egin eta gainditzeko da hitzarmen hori.

Segurtasuna

ONARTU DA JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS JARDUEREN EUSKAL KONTSEILUA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA

Gobernuko Kontseiluak Segurtasun Sailak eskatuta, gaur onartu du Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituen dekretua. Kontseilua Euskadiko administrazio publikoaren aztertze, koordinatze eta aholkatze organo aholku-emailea da Ikuskizun eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legeak arautzen dituen gaietan.

Lege berriak ekarritako hobekuntza-berritasunen artean, aipatzekoa da Ikuskizunetarako Euskal Kontseiluak duen rol zabalagoa eta parte-hartzaileagoa. Erakunde horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, lurralde historikoetako udalak eta Euskadiko Udalen Elkarteak egongo dira ordezkaturik. Gainera, kontseilu berri horrek, lehenengo aldiz hartuko ditu barnean dagokion sektore ekonomikoaren interesak azaltzen dituzten erakundeak, baita Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Elkarteak ere.

Honako hauek izango dira Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluaren betekizunak:

- a) Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueren gainean emango diren xedapen orokorren proiektuei buruzko nahitaezko txostena igortzea.
- b) Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren inguruan, Euskal administrazio publikoek garatu beharreko jardueren koordinazioa sustatzea.
- c) Aholkua ematea, Legea aplikatzekoa den esparruko gaiei dagokienez, kontseiluan ordezkaturik dauden arlo eta erakundeek eskatzen dioten heinean.
- d) Proposamenak egitea eta txostenak igortzea Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituzten xedapenen interpretazio, aplikazio eta aldaketen inguruan.
- e) Gomendioak egitea, autonomia-agintaritzaren eta tokiko agintaritzaren esku-hartze administratiboa hobetzeko; legea arautzen duten helburu-gaiak kontuan hartuta.
- f) Egokitzat jotzen diren azterketak eta proposamenak egitea, Legean jasotzen diren helburuak ahalik eta hoberen gauzatzeko.
- g) Helburuak eta irizpideak proposatzea, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren ikuskaritza planak eta programak egiteko.

h) Ikuskizun gaietan eskumenduna den Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritzak sektorearen egoerari eta bilakaerari buruz urtero egingo duen memoria, hala badagokio, eztabaidatu eta onetsi.

i) Bestelako xedapen arau-emaitzetan esleitzen zaizkien betekizunak, zeinahi direlarik ere.

Eraketari dagokionez, honako hauek osatzen dute Kontseilua:

a) Lehendakaria: Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren inguruan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Saileko sailburuordea.

b) Lehendakariordea: Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren inguruan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaria.

c) Batzordekideak.

- Segurtasunerako eskumena duen Departamentuak bi pertsona izendatzen ditu; polizia, larrialdi eta babes zibileko erantzukizunak dituztenak.

- Eusko Jaurlaritzako Departamentuek izendatutako sei pertsona; kultura, kirol, hezkuntza, industria osasun publiko eta turismo kontuetan eskumena dutenak.

- Kontsumoko Euskal Institutuak, Kontsumobidek, izendatutako pertsona bat.

- Lurralde Historikoetako hiriburu bakoitzak izendatutako pertsona bat

- Ordezkaritza maila handiena duen Euskadiko Udal Elkarteak izendatutako hiru pertsona.

- Euskal Herriko Merkataritza, industria, zerbitzu eta nabigazioko ganbera ofizialek elkarrekin, edo eratu ziren unean Ganbera Kontseiluek izendatutako pertsona bat.

- Ikuskizunen eta Jolas Jardueren gaietan eskumena duen zuzendaritzaren proposamenez, eta dagokion sektore ekonomikoan ordezkariitza maila handiena dutenak direla ikusirik, sektore erakunde horiek izendatutako hiru pertsona.

- Ikuskizunen eta Jolas Jardueren gaietan eskumena duen zuzendaritzaren proposamenez, eta dagokion sektore ekonomikoan ordezkariitza maila handiena dutenak direla ikusirik, sektore erakunde horiek izendatutako hiru pertsona.

d) Idazkaria: Kontseiluko idazkaritzaren ardura duen pertsona, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren gaietan eskumena duen Saileko funtzionario bat izango da; hitza duena, baina ez botoa.

Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua ohiko bilkuran elkartuko da; gutxienez, urtean behin.

Ingurumen eta lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZA ETA BILBOKO PORTUA, ELKARREKIN LOGISTIKA BULTZATUZ

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Bilboko Portuko Agintaritzak sinatu duten Lankidetzeta-hitzarmenari. Horren xedea da Euskadiko plataforma logistikoen sarea sustatzea, azoka ezberdinetan parte hartuz.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak estrategia berezia diseinatu du Euskadiko Plataforma Logistika Intermodalak sustatzeko eta garatzeko. Xedea da garraio mota ezberdinak hartuko dituzten gune logistiko intermodalen sarea bultzatzea, trenbide-konexioak sustatzea eta plataforma logistikoak garatzea lankidetzeta-ekimenen bidez portu- eta aireportu-azpiegitura handiekin, hori guztia intermodalitatearen (trenbidea, portuak eta zama garraioko aireportua, funtsean) eta Arkuko Atlantikoan duen kokapen geografikoaren ikuspuntutik.

Aipatu estrategiak Basque Country Logistics izena jaso du eta bere helburua izango da plataforma multimodal eta multipolar bat ezartzea Iberiar Penintsula eta Europar Batasuna arteko zama-garraioen fluxuen egituratze-gune nagusi gisa, Magrebeko eta Hego Amerikako kontinentearteko trafikoa ere hartuko duena. Hori guztia, euskal trenbide sare berriaren (Euskal Y-a) ezarpenak epe ertainera izango duen eragin positiboa aintzat hartuz. Hitzarmenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak laurogei mila (80.000,00) euro ordainduko ditu 2016n, informazio-standak jarri eta aipatuak artatzeko.

Basque Country Logistics ondoko azoketan egongo da, besteak beste: Fruit Logistica (Berlin), SITL Paris, Intermodal Southamerica (Sao Paulo), Expomin (Txileko Santiago), Multimodal (Birmingham), Feria Breakbulk (Anberes), Feria BIEMH (Barakaldo), SIL / CONGRESO ALACAT (Bartzelona), European Commodities Exchange (Torino), Fruit Attraction (Madril), Breakbulk (Houston), Intermodal Europe (Rotterdam) eta INTERGUNE (Bilbo).

Desarrollo Económico y Competitividad

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA LA ESTRATEGIA VASCA DE ENERGÍA 2030

- ❖ Euskadi se plantea alcanzar en el período 2016-2030 un nivel de ahorro del 17%, con un papel ejemplarizante de la Administración Pública Vasca en sus edificios.
- ❖ Entre los objetivos está duplicar el uso de las renovables, así como reducir el consumo de derivados del petróleo un 18%, respecto al año 2015.
- ❖ Las actuaciones permitirían mejorar un 33% la intensidad del consumo energético, contribuir a la mitigación del cambio climático y fomentar el desarrollo tecnológico-energético.
- ❖ Las inversiones necesarias en 15 años alcanzarían los 4.930 M€.

Contexto

Las directrices de la política energética vasca vienen plasmadas desde sus inicios en 1981 en los diversos documentos que hasta la fecha han sido elaborados al respecto. La Estrategia Energética de Euskadi 2020 (3E2020) estableció los objetivos estratégicos, áreas de actuación e iniciativas estratégicas para el período 2011-2020 para Euskadi.

En estos últimos años han existido diversos factores que hacen necesaria la revisión de la vigente estrategia energética de Euskadi 2020. Por una parte, la crisis económica se ha alargado más tiempo de lo inicialmente previsto y la salida de la misma está siendo más lenta. Por otra parte, también ha sido relevante el conjunto de reformas que ha sufrido en los últimos cuatro años el sector energético en general, y el eléctrico en particular. Estas reformas han conllevado entre otros aspectos recortes de las retribuciones de las actividades reguladas, el incremento de los costes de las tarifas de acceso para los consumidores, con una incidencia relevante en cogeneración y renovables, con la paralización de nuevas instalaciones, o el retroceso de la cuota de biocarburantes en automoción. Desde el punto de vista tecnológico, no terminan de despegar al ritmo previsto algunas tecnologías clave como es el caso del vehículo eléctrico, mientras bajan los costes de la fotovoltaica acercándose a la paridad de red.

Aunque se han puesto en marcha un gran número de actuaciones de política energética en el marco de la 3E2020, no todas se están aproximando a los objetivos establecidos. En efecto, mientras que -a pesar de la crisis económica- se están dando avances positivos en eficiencia energética y desarrollo

tecnológico y se han puesto en marcha varias infraestructuras energéticas clave, no ocurre lo mismo con el despliegue de las energías renovables, incluso con la incorporación de un importante número de pequeñas instalaciones apoyadas con los programas del Gobierno Vasco. Todos estos factores mencionados han aconsejado revisar los objetivos 2020 y plantear un nuevo horizonte.

La Unión Europea, que es el principal actor mundial en la lucha contra el cambio climático, ha establecido diferentes actuaciones dirigidas al cumplimiento de sus objetivos energéticos y climáticos para el año 2020 y 2030. Y en el caso de Euskadi, la Estrategia Vasca de Cambio Climático 2050 aprobada en 2015 establece importantes compromisos de sostenibilidad para Euskadi en las próximas décadas.

